

## **KONTROL MOZIOA**

### **HARRIA PARKEKO GUNE ESTALIA ETA OBRAK DIRELA ETA**

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko maiatzaren 14an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Aurreko legegintzaldian hainbat prozesu parte hartzaile egin ziren Altzan, auzoko beharrak bizilagunekin batera identifikatzeko helburuarekin. Hiriko auzo gehienetan gertatzen den bezala, auzokideek adierazitako beharren artean, gune estali baten eskaera zegoen. Hori dela eta, 325.490 euro bideratu zituen lehengo aurreko Udal Gobernuak gune estalia eraikitze lanekin hasteko 2015ean.

2016ko urrian, Udal Gobernu berriak prentsaren bidez ezagutarazi zuen Harria parkean gune estali hori jartzeko lanak egingo zituela eta 2017ko martxorako eginda egongo zela: *los altzataras tendrán en pocos meses una zona cubierta en el parque Harria, el espacio central de estancia y reunión del barrio. El Ayuntamiento aprobará la semana que viene y de forma definitiva el plan especial que permitirá esta intervención urbanística y que dotará a la zona de una cubierta de 610 metros cuadrados. Las obras saldrán en las próximas semanas a licitación y costarán 350.000 euros. Según explicó el concejal de Urbanismo, Enrique Ramos (PSE), la cubierta podría estar acabada en marzo.*

Berriro ere, Udal Gobernuak prentsaren bidez iragarritakoa eta errealitatean gertatutako ekintzak ez ziren bat etorri eta kontratazio espedientea zein pleguak ez ziren onartu 2017ko apirilaren 25eko gobernu batzordera arte.

2017ko abuztuaren 30eko diktamenean irakur daitekeen bezala, esleipena LURGOIEN S.A.U. enpresari egin zitzaion, ondorengo helburuarekin: Donostiako Harria parkeko gune bat estaltzeko obrak egitea, 4 hilabeteko epearekin eta 358.037,27 €ko aurrekontuarekin.

Esleipena egin eta bost hilabete ondoren Harria parkeko gune estalia egin gabe dago. Bizilagunek diotenez, obrak irailean hasi ziren baina bat-batean eten egin ziren eta geroztik ez dute ezer aurreratu.

Urtarrileko udalbatzarrean, hiriko gune estalien inguruan eztabaidatu genuenean, Udal Gobernuko ordezkariak adierazi zuten Udal Gobernuak gune estalien aldeko lana egiten ari zela, eta adibide bezala Harria parkearen kasua aipatu zuen.

Otsailaren hasieran, ordea, gure eta bizilagunen harridurarako, Udal Gobernuak berak obrak etetea erabaki zuen. Hirigintzako delegatuak prentsan egindako adierazpenetan esan zuenez, obrak egiten ari ziren bitartean oztopoak aurkitu zituzten eta haiek aztertzeko hiru asteko etenaldia behar zuten.

Egoera hori zela eta, otsaileko udalbatzarrean honako kontrol mozio hau onartu zen aho-batez:

*1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Harria parkeko gune estaliaren obraren kronograma zehatza aurkeztu eta ezagutarazi diezaiela auzoko bizilagunei, obraren jarraipena egiteko moduan.*

2.- *Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Harria parkeko gune estalia martxoan bukatzen ez bada, azalpenak eman diezaiela auzotarrei eta udal taldeei*

Kontrol mozioa onartu zenetik, ez dugu Harria parkeko obraren berririk izan eta bizilagunek ezingo dute Olatu-talka parkean ospatu, hasieran nahi zuten bezala.

Maiatzeko batzordeetan honen inguruan galdetu dugunean, delegatuak adierazi digu obrak bukatuta egon behar zuela martxoaren 19rako eta atzerapena enpresaren errua dela. Horregatik, zigor espedientea irekiko diote enpresari konponketa ugari egin gabe daudelako: txapak jarri, gune berdeak konpondu, gomazko zorua ondo jarri, etab. Dena den, delegatuak aipatu zuen maiatzaren 25erako gune estalia jarrita egongo zela.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **MOZIO** hau aurkezten du:

### **KONTROL MOZIOA:**

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Harria parkeko gunea estaltzeko obraren prozesuaren balorazio txosten bat egin dezala, gune-estalien batzordearen bidez, eta txosten hori Udalbatza osatzen dugun taldeekin konpartitu dezala.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Harria parkeko gune estaliari etekina ateratzeko, udaran Udalak antolatzen dituen jaialdietan eta programazioan txerta dezala.

Donostian, 2018ko maiatzaren 18an

Olaia Duarte López

EH Bildu udal taldeko zinegotzia